

TERMOMETROA IPINI DUT ETA SUKARRA DAUKAT, ZER EGIN DEZAKET?

Sukarra defentsa-mekanismo bat da, infekzioei aurre egiteko balio du, eta ez da beti beharrezkoa medikamentuekin tratatzea. Sukarraz gain ondoez orokorra edo mina dagoenean, erabili daitezke medikamentuak.

■ **PARAZETAMOLA ETA IBUPROFENOA** dira gomendatutako medikamentuak. Eraginkorrek eta seguruak dira, mina baretu eta sukarra jaisten dute. Ibuprofenoak, gainera, propietate antiinflamatorioak dauzka.

Parazetamola seguruagoa da tentsio altua edo bihotzeko beste arazo batzuk dituzten pertsonentzat, digestio edo giltzurruneko arazoak dituztenentzat, antikoagulatzaileekin tratamenduan daudenentzat, ibuprofenoari alergia diotenentzat, haurdun daudenentzat...

Pediatrian [parazetamol](#) eta [ibuprofeno](#) dosiak pisuaren arabera kalkulatu dira.

Helduentzat, gomendatutako [parazetamolaren](#) dosia 500mg-koa da, gehienez 4-6 orduko behin, eta [ibuprofenoarena](#) 400 mg-koa, gehienez 6-8 orduko behin.

■ PARAZETAMOLA ETA IBUPROFENOA TXANDAKATU EDO KONBINATU DITZAKET?

Ez da gomendatzen. Akatsak egiteko eta kontrako efektuak izateko arriskua handitzen da. Bietako bat aukeratzea gomendatzen da.



■ GAINERA...

Ez da gomendatzen medikamentu hauek hartzea txertaketaren ondorioz izan daitekeen sukarra prebenitzeko.

Antibiotiko bat hartu bitartean parazetamola edo ibuprofenoa har daiteke, mina edo ondoeza badago.

Sukarra jaisteko ez dago gomendatuta gehiegi tapatzea edo arropa erantztea, zapi hezeak erabiltzea, alkoholarekin igurtziak egitea edota dutxak eta bainuak hartzea.

... eta oso garrantzitsua da atseden hartzea eta likido asko edatea.

Bibliografia:

• [Centro de Información online de Medicamentos de la AEMPS](#). Ibuprofeno eta parazetamolaren erabilera orriak. [2023/12/04].

• Llerena Santa Cruz E, Guarch Ibáñez B, Buñuel Álvarez JC. [No existen pruebas suficientes que avalen el uso de ibuprofeno y paracetamol combinados para el tratamiento de la fiebre](#). Evid Pediatr. 2012;8:18.

Egileak: Iñigo Aizpurua, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Cancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^a José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras eta Juan Uriarte.

cevim
centro vascu de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Fitxa honen helburu bakarra informazioa ematea da, eta inola ez ditu ordezkatzeko zure osasun arloko profesionalak emandako gomendioak. Gutziz debekatuta dago dokumentu hau promozio helburuetarako erabiltzea. ISSN: 2255-3177





ME PONGO EL TERMÓMETRO Y TENGO FIEBRE, ¿QUÉ HAGO?

La fiebre es un mecanismo de defensa, sirve para luchar contra una infección, y no siempre hay que tratarla con medicamentos. Estos pueden ser necesarios cuando la fiebre viene acompañada de malestar general o dolor.

■ **EL PARACETAMOL Y EL IBUPROFENO** son los medicamentos recomendados. Son eficaces y seguros, sirven para calmar el dolor y bajan la fiebre. El ibuprofeno tiene además propiedades antiinflamatorias.

El paracetamol es más seguro en personas con la tensión alta u otros problemas de corazón, con problemas digestivos, de riñón, en tratamiento con anticoagulantes, con alergia a ibuprofeno, embarazadas...

En pediatría las dosis de [paracetamol](#) y de [ibuprofeno](#) se calculan en función del peso.

En adultos la dosis recomendada de [paracetamol](#) es de 500 mg, máximo cada 4-6 horas y la de [ibuprofeno](#) es de 400 mg, máximo cada 6-8 horas.

■ ¿PUEDO ALTERNAR O COMBINAR EL PARACETAMOL Y EL IBUPROFENO?

No se recomienda. Aumenta el riesgo de errores y de efectos adversos. Se aconseja elegir uno de ellos.



■ ADEMÁS...

No se recomienda tomar estos medicamentos para prevenir la fiebre posvacunal.

Si se está en tratamiento con un antibiótico, se pueden tomar el paracetamol o el ibuprofeno en caso de dolor o malestar.

Se desaconseja cubrirse o desabrigrarse demasiado, el uso de paños húmedos, las frías de alcohol y las duchas o baños para bajar la fiebre.

...y es importante descansar y beber mucho líquido.

Bibliografía:

• [Centro de Información online de Medicamentos de la AEMPS](#). Prospectos de ibuprofeno y paracetamol. (04/12/2023).

• Llerena Santa Cruz E, Guarch Ibáñez B, Buñuel Álvarez JC. [No existen pruebas suficientes que avalen el uso de ibuprofeno y paracetamol combinados para el tratamiento de la fiebre](#). Evid Pediatr. 2012;8:18.

Elaborado por: Iñigo Aizpuru, Teodoro Alonso, Rosa Añel, Naiara Bidaburu, Isabel Elizondo, Laura Gancedo, Nagore Lejarza, Itxasne Lekue, M^a José López, Oihana Mora, Carmela Mozo, Corpus Peral, Isabel Porras y Juan Uriarte.

cevime
centro vascu de información de medicamentos
medikamentu informazioko euskal zentroa

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

La información aquí contenida tiene únicamente finalidad informativa y en ningún caso sustituye las recomendaciones de tu profesional de la salud. Queda totalmente prohibido el uso de este documento con fines promocionales. ISSN: 2255-3177

